BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA
BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

BAO. 147. zk. 2015, abuztuak 4. Asteartea — 17875 — BOB núm. 147. Martes, 4 de agosto de 2015

Laburpena / Sumario

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa / Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila **17876**

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren 2312/2015 FORU AGINDUA, uztailaren 23koa. Honen bidez, batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2015/2016ko ehiza-denboraldirako epealdiak ezartzen dira, eta, bestetik, debekualdi bereziak ezarri edo luzatzen dira. 17876

2313/2015 FORU AGINDUA, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuarena, uztailaren 23koa, zeinaren bidez finkatzen baitira 2015/2016 ehiza-denboraldian Bizkaiko Lurralde Historikoan araudi berezia duten paseko lerroetan uso eta birigarro migratzaileak ehizatzeko arauak. 17893

Ekainaren 4ko 1970/2015 Foru Aginduaren jakinarazpena, AYDA EXPA 00202/2015 espedienteari buruzkoa. 17907

Ekainaren 4ko 1997/2015 Foru Aginduaren jakinarazpena, AYDA EXPA 03123/2014 espedienteari buruzkoa. 17907

Ogasun eta Finantza Saila **17907**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 140/2015 FORU DEKRETUA, uztailaren 28koa; honen bidez Sozietateen gaineko Zergaren Araudia, Bizkaiko Foru Aldundiak abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa, aldatu da. 17907

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1565/2015 FORU AGINDUA, uztailaren 29koa. Honen bidez, pertsona estatubatuar jakin batzuen finantza-kontuei buruzko urteko aitorpen informatiboa egiteko 290 eredua onesten da. 17910

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila **17911**

Oker-zuzenketa, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren uztailaren 8ko 58/2015 FORU AGINDUA, Karrantza-Harana Udaleko idazkari-kontuhartzaile titularra den Iciar Becerra Souto andreari baimena ematen diona Zallako Udaleko idazkari lanpostuan ere une berean jarduteko. 17911

Bizkaiko Foru Aldundiak 2015eko uztailaren 21ean egindako ohiko bilkuran hartutako erabakien laburpena. 17912

Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural

ORDEN FORAL de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural 2312/2015, de 23 de julio, por la que se fijan los periodos hábiles de caza en el Territorio Histórico de Bizkaia y las vedas especiales que se establecen o prorrogan para la temporada cinegética 2015/2016.

ORDEN FORAL de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural 2313/2015, de 23 de julio, por la que se fija la normativa que regula la caza de la paloma y zorzales migratorios en las líneas de pase con reglamentación especial declaradas en el Territorio Histórico de Bizkaia en la temporada cinegética 2015/2016.

Notificación de Orden Foral 1970/2015 de 4 de junio del expediente AYDA EXPA 00202/2015.

Notificación de Orden Foral 1997/2015 de 4 de de junio del expediente AYDA EXPA 03123/2014.

Departamento de Hacienda y Finanzas

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 140/2015, de 28 de julio, por el que se modifica el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por medio del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 203/2013, de 23 de diciembre.

ORDEN FORAL del diputado foral de Hacienda y Finanzas 1565/2015, de 29 de julio, por la que se aprueba el modelo 290, declaración informativa anual de cuentas financieras de determinadas personas estadounidenses.

Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales

Corrección de errores de la ORDEN FORAL número 58/2015 de 8 de julio, de la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, por la que se autoriza a doña Iciar Becerra Souto, titular del puesto de Secretaría-Intervención del Ayuntamiento de Karrantza-Harana para el desempeño acumulado del puesto de Secretaria del Ayuntamiento de Zalla.

Extracto de los acuerdos adoptados por la Diputación Foral de Bizkaia en la reunión ordinaria celebrada el día 21 de julio de 2015.

II. Atala / Sección II

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa / Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia

Bilboko Udala	**17915**	**Ayuntamiento de Bilbao**
Getxoko Udala	**17919**	**Ayuntamiento de Getxo**
Sestaoko Udala	**17920**	**Ayuntamiento de Sestao**
Mallabiko Udala	**17935**	**Ayuntamiento de Mallabia**
Barakaldoko Udala	**17937**	**Ayuntamiento de Barakaldo**
Galdakaoko Udala	**17937**	**Ayuntamiento de Galdakao**
Sopelako Udala	**17939**	**Ayuntamiento de Sopela**
Alonsotegiko Udala	**17940**	**Ayuntamiento de Alonsotegi**
Garaiko Udala	**17940**	**Ayuntamiento de Garai**
Zierbenako Udala	**17941**	**Ayuntamiento de Zierbena**
Gueñesko Udala	**17942**	**Ayuntamiento de Güeñes**
Amorebieta-Etxanoko Udala	**17942**	**Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano**

III. Atala / Sección III

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración Autonómica del País Vasco

Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Saila	**17943**	**Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad**

V. Atala / Sección V

Justizi Administrazioa / Administración de Justicia

17945	**Tribunal Superior de Justicia del País Vasco**
17945	**Juzgado de lo Social número 1 de Bilbao (Bizkaia)**
17945	**Juzgado de lo Social número 2 de Bilbao (Bizkaia)**
17946	**Juzgado de lo Social número 4 de Bilbao (Bizkaia)**
17947	**Juzgado de lo Social número 7 de Bilbao (Bizkaia)**
17948	**Juzgado de lo Social número 8 de Bilbao (Bizkaia)**
17951	**Juzgado de lo Social número 9 de Bilbao (Bizkaia)**
17951	**Juzgado de lo Social número 10 de Bilbao (Bizkaia)**
17953	**Juzgado de Instrucción número 9 de Bilbao (Bizkaia)**

VII. Atala / Sección VII

Beste batzuk / Varios

17953	**Junta de Concertación del Área 14 C EARLE del PGOU de Leioa**

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren 2312/2015 FORU AGINDUA, uztailaren 23koa. Honen bidez, batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2015/2016ko ehiza-denboraldirako epealdiak ezartzen dira, eta, bestetik, debekualdi bereziak ezarri edo luzatzen dira.

Martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 31. artikuluan zein urriaren 16ko 216/2012 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza daitezkeen espezieen zerrenda ezartzekoa dena) xedatutakoa betetzeko, eta kontuan hartuta zer ezartzen den, batetik, martxoaren 25eko 506/1971 Dekretuan (haren bidez onartu zen ehizari buruzko 1970eko apirilaren 4ko Legea exekutatzeko erregelamendua), Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean zein Euskadiko Izadiaren Artapenari buruzko ekainaren 30eko 16/2014 Legean, bestetik, Europako Erkideen Kontseiluaren 2009/147 eta 1992/43 Zuzentarauetan, Europako Baso Bizitzaren eta Izadiko Ingurunearen Artapenari buruzko Bernako 1979ko irailaren 19ko Hitzarmenean eta 1997/95 Errege Dekretuan, eta, azkenik, alor honetan Espainiako Estatuak gai horretaz izenpetutako gainerako hitzarmenak, beharrezkoa da 2015/2016ko denboraldian ehiza-aprobetxamendurako ustiatu daitezkeen espezieak ehizatzeko epealdiak ezartzea —aprobetxamendu hori espezieon populazioen babes eta hobekuntzarekin bateragarriak izango da—. Halaber, helburu horiek lortzeko arauak eta mugak ezarri behar dira.

Honenbestez, eta 2015eko ekainaren 18an berariaz batzartu zen Ehizako Lurralde Kontseiluari entzun ondoren, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 36. eta 64. artikuluek, eta Autonomia —Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanetarako 1983ko azaroaren 25eko Legearen 7.b)3. artikuluari dagokionez— emandako eginkizunekin bat etorrita, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.—*Ehizan egin ahal izateko egunak eta orduak*

1.1. Ehizatzeko egunak: Bizkaian ehizan egin ahal izateko egunak espezie edo espezie-multzo bakoitzari dagozkion artikuluetan aipatutakoak izango dira.

1.2. Ehizatzeko orduak: Ehizatzeko orduak honakoak izango dira, ordutegi berezirik ezarrita ez duten espezie edo motentzako izan ezik:

— Urriaren 26a arte: 7:30etik 19:00etara.

— Urriaren 27tik urtarrilaren 31ra: 8:00etatik 17:30era.

2. artikulua.—*Ehizatzeko aldiak eta araudi berezia*

2.1. Debeku erdiko aldia: Ehizatzeko aldi orokorra 2015eko abuztuaren 23tik irailaren 20ra —biak barru direla— izango da, eta aldi horren barruan asteko egun guztietan egin ahal izango dela ehizan.

Oro har, honako espezie hauek ehizatu ahal izango dira: Galeperra (Coturnix co-turnix), usapal arrunta (Strepatopelia turtur), pagausoa (Columba palumbus), haitz-usoa (Columba livia) mika (Pica pica) eta belabeltza (Corvus corone).

Debeku erdiaren barruan, aprobetxamendu erkideko aldeetan ehizan egiten du-ten zaletuek harrapatutakoen agiria (I. eranskina) bidali beharko dute Ehiza eta Arrantza Atalera, behar bezala beteta, 2015eko urriaren 11 baino lehen.

Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural

ORDEN FORAL de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural 2312/2015, de 23 de julio, por la que se fijan los periodos hábiles de caza en el Territorio Histórico de Bizkaia y las vedas especiales que se establecen o prorrogan para la temporada cinegética 2015/2016.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 2/2011, de 17 de marzo de 2011, Decreto 216/2012, de 16 de octubre, por el que se establece el listado de especies cinegéticas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, teniendo en cuenta lo igualmente dispuesto en el Decreto 506/1971, de 25 de marzo por el que se aprueba el reglamento para la ejecución de la Ley de Caza de 4 de abril de 1970, la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, así como lo previsto en las Directivas 2009/147 y 1992/43 del Consejo de las Comunidades Europeas, Convenio de Berna de 19 de Septiembre de 1979 relativo a la conservación de la vida silvestre y del medio natural en Europa, Real Decreto 1997/95 y demás Convenios suscritos por el Estado Español en la materia, se hace preciso determinar las épocas hábiles de caza de aquellas especies susceptibles de aprovechamiento cinegético, compatible con la protección y mejora de sus poblaciones durante la campaña 2015/2016, así como establecer las normas y limitaciones consecuentes con estos objetivos.

En consecuencia, oído el Consejo Territorial de Caza reunido al efecto el día 18 de junio de 2015, y en virtud de las funciones atribuidas sobre la materia en los artículos 39 y 64 de la Norma Foral 3/1987 de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, de 13 de Febrero de 1987 en relación con lo establecido en el artículo 7. b) 3 de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y Órganos Forales de sus Territorios Históricos, de 25 de noviembre de 1983.

DISPONGO:

Artículo 1.—*Días y horarios hábiles*

1.1. Días hábiles: Los días hábiles para el ejercicio de la caza en Bizkaia se indican en los artículos correspondientes a cada especie o grupo de especies.

1.2. Horarios hábiles: Los horarios hábiles serán, salvo en las especies o modalidades para las que se establezca un horario específico, los siguientes:

— Hasta el 26 de octubre: De las 7:30 a las 19:00 horas.

— Del 27 de octubre a 31 de enero: De 8:00 a 17:30 horas.

Artículo 2.—*Periodos hábiles y regulación específica*

2.1. Media veda: El periodo hábil, con carácter general, comprenderá del 23 de agosto al 20 de septiembre de 2015, ambos inclusive, pudiéndose cazar todos los días de la semana durante dicho período.

Las especies cazables con carácter general serán: Codorniz (Coturnix coturnix), Tórtola común (Streptopelia turtur), Paloma torcaz (Columba palumbus), Paloma bravía (Columba livia), Urraca (Pica pica) y Corneja negra (Corvus corone).

De acuerdo al artículo 8, las personas aficionadas que cacen en la media veda en terrenos de aprovechamiento común, deberán remitir a la Sección de Caza y Pesca Continental, antes del 11 de octubre de 2015, un parte de capturas (Anexo I), debidamente cumplimentado.

Ehiza-esparruetan eta kontrolpeko ehiza-aldeetan, ehiza jarraitzeko planean ezarriko da zein izango den ehizatzeko aldia.

2.2. Ehiza xehea, oro har: Ehizan egiteko aldia, orokorrean, eta hurrengo ataletan ezartzen diren salbuespenak kontuan izanik, 2015eko urriaren 12tik 2016ko urtarrilaren 31 artekoa, egun biak barru, izango da.

Talde honen barruan sartutako espezieak honako hauek dira:

— Ugaztunak: Azeria (Vulpes vulpes), erbia (Lepus europaeus) eta untxia (Oryctolagus cunicu-lus).

— Hegazti sedentarioak: Eper gorria (Alectoris rufa), faisaia (Phasianus colchicus), arabozozo pikarta (Sturnus vulgaris), mika arrunta (Pica pica), belabeltza (Corvus corone) eta haitz-usoa (Columba livia).

— Hegazti migratzaileak: Txoloma (Columba oenas), pagauso (Columba palumbus), usapala (Streptope-lia turtur),durdula (Turdus pilaris), birigarro arrunta (Turdus philomelos), birigarro txikia (Turdus iliacus), garraztarroa (Turdus viscivorus), galeperra, (Coturnix co-turnix), hegabera (Vanellus vanellus), oilagorra (Scolopax rusticola), istingor arrunta (Gallinago gallinago) eta istingor txikia (Lymnocryptes minimus).

— Uretako hegaztiak: Antzara hankagorrizta (Anser anser), ahate txistularia (Anas penelope), ipar-ahatea (Anas strepera), basahatea (Anas platyrhynchos), ahate buztanluzea (Anas acuta), ahate mokozabala (Anas clypeata), zertzeta arrunta (Anas crecca), uda zertzeta (Anas querquedula), murgilari arrunta (Aythya ferina), murgilari mot-toduna (Aythya fuligula) eta kopetazuri arrunta (Fulica atra).

2.2.1. Erbia (Lepus europaeus): Erbiak ehizatzeko aldia 2015eko urriaren 12tik abenduaren 31 artekoa izango da. Aldi horretan zehar, ehizatzeko egunak igandeak izango dira bakarrik. Hala ere, ehiza-esparruetan eta kontrolpeko ehiza-aldeetan, berriz, igandea edo larunbata ere ehizarako eguna izendatu daiteke, betiere urteko ehiza planean proposatu eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak onetsiz gero. Ehizan egiteko ordutegia 8:00etatik 14:00etara bitartekoa izango da.

Ehizarako lur hauetan baino ezingo da ehizatu erbia:

— Aprobetxamendu erkideko ehizarako lurrak:

• Otxandio eta Ubideko udalerriak.

— Ehiza-esparruak:

• Karrantzako Ehiza Elkartea: Aldeak Esparruko Ehiza Antolamendu Planean ezarritakoak dira.

• Urduña-Larruzabal ehiza-barrutia: Aldeak Esparruko Ehiza Antolamendu Planean ezarritakoak dira.

• Dimako kontrolpeko ehiza-aldea.

Ondoren, ehiza mota horri buruzko arautegia ezartzen da:

1) Ehiza modalitate hau egin nahi dutenek eskaera aurkeztu behar dute, eredu ofizialean (www.bizkaia.net), Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko Ehiza eta Ibaietako Arrantza Kudeatzeko Atalean (Lehendakari Agirre, 9, 2, 48014-Bilbo), abuztuaren azken hamabostaldian, ehiztarien erregistro bat sortzeko.

2) Eskabideetan, kuadrillako kideen kopurua adieraziko da, bakoitzaren izen-abizenak eta NANaren zenbakia adieraziz. Horrez gainera, harremanetarako kuadrillako arduradunaren eta beronen ordezkoaren helbidea eta telefono zenbakia adierazi behar dira. Kuadrilla ezingo dute lau ehiztarik baino gehiagok osotu, ehiza-esparruetan eta kontrolpeko ehiza-aldeetan izan ezik; toki horietan kide gehiagok parte ahal izango dute, aurretiaz eskabidea eginda.

3) Eskabidean, adierazi behar da erbia zein egunetan eta zein aldetan ehizatu nahi den.

En las zonas de caza controlada y en los cotos el periodo hábil se establecerá en el plan de seguimiento cinegético.

2.2. Caza menor en general: El período hábil comprenderá, con carácter general, y salvo las particularidades que se establecen en los apartados siguientes, del 12 de octubre de 2015 al 31 de enero de 2016, ambos inclusive.

Las especies incluidas en este grupo son:

— Mamíferos: Zorro (Vulpes vulpes), Liebre (Lepus europaeus), Conejo (Oryctolagus cunicu-lus).

— Aves sedentarias: Perdiz roja (Alectoris rufa), Faisán (Phasianus colchicus), Estornino pinto (Stur-nus vulgaris) Urraca (Pica pica), Corneja negra (Corvus corone), Paloma Bravía (Columba livia).

— Aves migratorias: Paloma Zurita (Columba oenas), Paloma torcaz (Columba palumbus), Tórtola común (Streptopelia turtur), Zorzal real (Turdus pilaris), Zorzal común (Turdus philomelos), Zorzal alirrojo (Turdus iliacus), Zorzal charlo (Turdus viscivorus), Codorniz, (Coturnix coturnix), Avefría (Vanellus vanellus), Becada (Scolopax rusti-cola), Agachadiza común (Gallinago gallinago), Agachadiza chica (Lymnocryptes minimus).

— Aves acuáticas: Ansar común (Anser anser), Anade silbón (Anas penélope), Anade friso (Anas strepera), Anade real (Anas platyrhynchos), Anade rabudo (Anas acuta), Pato cuchara (Anas clypeata), Cerceta común (Anas crecca), Cerceta carretona (Anas querquedula), Porrón común (Aythya ferina), Porrón moñudo (Aythya fulígula) y Focha común (Fulica atra).

2.2.1. Liebre (Lepus europaeus): Para la liebre, el periodo hábil será el comprendido entre el 12 de octubre y el 31 de diciembre de 2015. Durante este periodo los días hábiles serán únicamente los domingos. Sin embargo, en cotos de caza y zonas de caza controlada se podrá habilitar el domingo o el sábado como día hábil siempre y cuando se proponga esta circunstancia en el plan de seguimiento cinegético y se apruebe por el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural. El horario hábil estará comprendido entre las 8:00 y las 14:00 horas.

La caza de la liebre solamente se podrá realizar en los siguientes terrenos cinegéticos:

— Terrenos cinegéticos de aprovechamiento común:

• Municipio de Otxandio y de Ubide.

— Cotos de caza:

• Coto de caza de Karrantza: Las zonas se limitan a las establecidas en el plan técnico de ordenación cinegética del acotado.

• Coto de caza de Urduña-Ruzabal: Las zonas se limitan a las establecidas en el plan técnico de ordenación cinegética del acotado.

• Zona de caza controlada de Dima.

Asimismo, se establece a continuación la normativa que regulará esta modalidad de caza:

1) Las personas interesadas en practicar esta modalidad de caza deberán presentar en la Sección de Caza y Pesca Continental del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, Avda. Lehendakari agirre, 9, 2.º, 48014-Bilbao, una solicitud de acuerdo al modelo oficial (www.bizkaia.net) en la última quincena de agosto, con el fin de crear un registro de cazadores y cazadoras.

2) En las solicitudes se indicará el número de componentes de la cuadrilla, con expresión de su nombre, apellidos y D.N.I., además de la dirección y teléfono de contacto de la persona responsable de cuadrilla así como de su suplente. La cuadrilla no podrá exceder de cuatro personas cazadoras, excepto en cotos y zonas de caza controlada, en las que su número podrá ser mayor previa solicitud.

3) En la solicitud es imprescindible indicar las fechas y zona donde se pretende realizar la caza de la liebre.

4) Baimenak eta harrapaketa-agiriaren inprimakia Ehiza eta Ibaietako Arrantza Kudeatzeko Atalean jasoko dira, 2015eko urriaren lehen astean.

5) Baimenak doakoak izango dira, eta honela banatuko dira: baimenen bi heren Karrantzako ehiza-barrutiaren titularrarentzat; gainerakoa, hau da, heren bat barruti horri lotuta ez dauden ehiztarientzat.

Nolanahi ere, Karrantzako ehiza-esparru pribatuarekin edota Dimako kontrolpeko ehiza-aldearekin loturarik ez duten pertsonek baimen egokia eskatu behar dute, eta ehizarako lur horietan ehizatzeko baimen egokia lortu beharko dute.

Ehiza eta Ibaietako Arrantza Kudeatzeko Atalean lortuko dira baimenak, edo sozietateek horretarako adierazten duten lekuan.

6. Kuadrilla bakoitzak, gehienez ere, erbi bat harrapatu ahal izango du eguneko. Ehiztari bat bakarrik doanean ere, kuadrillarik gabe, gehienez erbi bat harrapatu ahal izango du eguneko.

7. Ehiza-eguna hasi aurretik, abisua eman behar zaio Base Gorriari, bai eta jakinarazi ere zer udalerri eta alderditara joango den.

8. Espezie hau ehizatzeko behar bezala identifikatutako ehiza-txakurrak erabil daitezke bakarrik.

9. Erbiaren denboraldia bukatutakoan, 2016ko urtarrilaren 31 baino lehen, Ehiza eta Ibaietako Arrantza Kudeatzeko Atalera eramango dira harrapaketa-agiriak; ehiza-eguneko datu hauek adierazi behar dira agiriotan: data, harrapatutako animalia-kopurua, sexua (garapen-egoera aipatuta), gaztea edo heldua den, eta egindako oharrak. Animaliarik harrapatu ez bada, zero batez adierazi behar da.

Nahitaez aurkeztu behar da espezie horren harrapaketa-agiria, ehizan parte hartu ez bada ere eta gainerako espezieen harrapaketa-agiriak aurkeztu badira ere, foru agindu honen zortzigarren artikuluan jasotzen den bezala.

2.2.2. Untxia (Oryctolagus cuniculus): Untxiaren ehizari dagokionez, debekatuta egongo da Bizkaiko Lurralde Historiko osoan, Urduña-Larruzabalgo ehiza-esparruan izan ezik.

Hala ere, alde batzuetan espezieak kalteak egiten badizkio nekazaritzari edo haren kontrola beharrezkotzat hartzen bada arrazoi biologiko edo zoosanitarioengatik, orduan Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak baimen bereziak eman ahal izango ditu, espezie hori harrapatzeko.

2.2.3. Eperra (Alectoris rufa) eta faisaia (Phasianus colchicus): 2015eko urriaren 12tik 2016ko urtarrilaren 31 artekoa izango da ehizatzeko aldia.

Eperra eta faisaia ehiza-esparruetan eta kontrolpeko ehiza-aldeetan ehizatuko dira bakarrik, bertako arautegia betez; debekatuta egongo da aprobetxamendu erkideko ehiza-lurretan ehizatzea, berariazko baimena eskura denean izan ezik.

Karrantzako ehiza-esparru sozialean eta Sopuertako ehiza kontrolatuko eremuan, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak baimenak eskainiko ditu espezieok ehizatzeko. Baimenak eskualdeko nekazaritza-bulegoetan eta Ehiza eta Ibaietako Arrantza Kudeatzeko Atalaren bulegoan emango dira.

2.2.4. Oilagorra (Scolopax rusticola): 2015eko urriaren 12tik 2016ko urtarrilaren 31 artekoa izango da ehizatzeko aldia (egun biak barne). Aldi horretan zehar asteko egun guztietan egin ahal izango da ehizan, ostiraletan izan ezik.

Aurrekoa gorabehera, ehizatzeko aldia otsailaren 14a arte luzatuko da, bai eta ehiza-esparruetan eta kontrolpeko ehiza-aldeetan ere, haien araubidean ezarritakoaren arabera.

Ehiztari bakoitzak egunean gehienez 3 oilagor ehizatu ahal izango ditu.

Espezie horren ehiza «jauzi» txakurrarekin izeneko modalitatean bakarrik baimenduko da, eta debekatuta dago «itxaron» erazko ehiza egitea.

4) Las autorizaciones junto con el impreso de parte de capturas se retirarán en la Sección de Caza y Pesca Continental la primera semana de octubre 2015.

5) La distribución de los permisos, que serán gratuitos, será como sigue: dos tercios corresponderá para el titular del coto de caza de Karrantza, el resto, un tercio, para personas cazadoras no vinculadas a este acotado.

En cualquier caso, aquellas personas no asociadas al coto de caza de Karrantza o a la zona de caza controlada de Dima, deberán obtener el oportuno permiso para poder practicar la caza en dichos terrenos cinegéticos.

Los permisos se obtendrán en las dependencias de la Sección de Caza y Pesca Continental o en el lugar que a tal efecto señalen las sociedades.

6. El cupo máximo será de un ejemplar por cuadrilla y día. Si se trata de un cazador o cazadora individual, el cupo máximo también será de una liebre por día.

7. Antes de iniciar la jornada de caza se deberá avisar de tal circunstancia a Base Gorria indicando cual es el paraje y el municipio donde se va a acudir.

8. La caza de esta especie únicamente se podrá realizar con perros de rastro debidamente identificados.

9. Finalizado el periodo hábil de esta especie, y antes del 31 de enero de 2016, se entregarán en la Sección de Caza y Pesca Continental los partes de capturas cumplimentados, indicando el día disfrutado de caza con expresión de la fecha, capturas realizadas, sexo con mención del estadío de desarrollo; joven o adulto, así como las observaciones realizadas. En el caso de que no hayan existido capturas se indicará con un cero.

La entrega del parte de capturas de esta especie será obligatoria e independiente de no asistir a cazar y de otros partes para el resto de especies tal y como consta en el artículo ocho de la presente Orden Foral.

2.2.2. Conejo (Oryctolagus cuniculus): Por lo que se refiere al conejo su caza estará prohibida en todo el Territorio Histórico de Bizkaia, excepto en el coto de caza de Urduña/Ruzabal.

No obstante, en aquellas zonas donde la especie cause daños a la agricultura o su control se entienda necesario por razones biológicas o zoosanitarias, el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural podrá emitir autorizaciones especiales para su captura.

2.2.3. Perdiz (Alectoris rufa) y faisán (Phasianus colchicus): El periodo hábil comprenderá del 12 de octubre de 2015 al 31 de enero de 2016.

La perdiz y el faisán solamente se podrán cazar en cotos de caza y zonas de caza controlada, de acuerdo con su reglamentación, estando prohibida su caza en los terrenos cinegéticos de aprovechamiento común salvo con autorización expresa.

En el coto social de Karrantza y la zona de caza controlada de Sopuerta el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia ofertará permisos para la caza de estas especies. Estos se expedirán a través de las Oficinas Comarcales Agrarias y de la oficina de la Sección de Caza y Pesca Continental.

2.2.4. Becada (Scolopax rustícola): El periodo hábil comprenderá del 12 de octubre de 2015 al 31 de enero de 2016, ambos inclusive. En dicho periodo podrá practicarse la caza, excepto el viernes, todos los días de la semana.

No obstante lo anterior, el periodo hábil se prolonga hasta el 14 de febrero inclusive en los cotos de caza y zonas de caza controlada de acuerdo con lo establecido en su plan de seguimiento cinegético.

Se establece un cupo máximo diario por persona cazadora de 3 becadas.

Solamente se permitirá la caza de esta especie «al salto» con perro, quedando prohibida su caza a la espera.

Ehiztaria, txakurrarekin, «jauzi» modalitatean ehizan ari denean bakarrik joko da espezie hau ehizatzen ari dela. Beste edozein ehiza-jarduera salatu ahal izango da.

Oilagorra ehizatzeko Artea eta Areatzako udalerrietan, Gorbeiako Parke Naturalaren barruan, eta Gueñes eta Galdamesko udalerrietan (Meatzaldeko Biotopo Babestuaren mugen barruan) beharrezkoa izango da beren-beregiko baimena izatea. Baimenak doakoak izango dira, eta eskualdeko nekazaritza-bulegoetan eta Ehiza eta Ibaietako Arrantza Kudeatzeko Atalaren bulegoan emango dira. Ehizarako egunak: astelehen, astearte, ostegun eta larunbatak.

2.2.5. Paseko hegaztiak: 2015eko urriaren 12tik 2016ko urtarrilaren 31 artekoa izango da ehizatzeko aldia. Aldi horretan zehar asteko egun guztietan egin ahal izango da ehizan.

Espezie migratzaileetarako, kupo bat ezartzen da: 30 pieza pertsonako eta eguneko. Hori hala izango da 3.1 artikuluaren bigarren paragrafoan ezarritakoa gorabehera.

2.2.6. Uso eta birigarro migratzaileak ohiko pasa-lerroetan: Araudi berezirik ez daukaten pasa-lerroetan, ehizatzeko aldia 2015eko urriaren 12tik 2016ko urtarrilaren 31 artekoa izango da. Aldi horretan, asteko egun guztietan ehizatu ahal izango da.

Lerro horietako tiro-postuak, banakakoak zein lerrokoak, finkoak izango dira eta nahitaez mendi-lepoetako gailurretan edo alde garaietan jarriko dira; debekatuta egongo dira eskopeta ibiltariak, eta ezingo da armak zorrotik aterata ibili tiro-postuetatik kanpo.

Araudi berezia duten pasa-lerroak, berriz, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren foru agindu baten bidez araupetuko dira.

2.2.7. Uretako hegaztiak: Ehizatzeko denboraldia 2015eko urriaren 12tik 2016ko urtarrilaren 31 artekoa da. Asteko egun guztietan ehizatu ahal izango da.

2.2.8. Azeria (Vulpes vulpes): Azeria ehizatzeko denboraldia 2015eko urriaren 12tik 2016ko urtarrilaren 31 artekoa izango da. Ehizatzeko egunak ostegunak, larunbatak, igandeak eta jaiegunak dira, eta baimendutako ordutegia 8:00etatik 17:00etara.

Ehizaldiak egin ahal izango dira; horretarako, honako arautegi hau ezartzen da:

1) Ehiza modalitate hau egin nahi dutenek eskaera aurkeztu behar dute, eredu ofizialean (www.bizkaia.net), Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko Ehiza eta Ibaietako Arrantza Kudeatzeko Atalean (Lehendakari Agirre, 9, 2, 48014-Bilbo), abuztuaren azken hamabostaldian, ehiztarien erregistro bat sortzeko.

2) Eskabideetan (eskuragarri egongo da eredu bat), honako datu hauek adierazi behar dira: kuadrillako kideen kopurua, bakoitzaren izen-abizenak eta NANaren zenbakia, kuadrillako arduradunaren helbidea zein telefonoa eta haren ordezkoarenak. Kuadrillak gutxienez hiru kide eta gehienez lau izango ditu, ehiza-esparruetan eta kontrolpeko ehiza-aldeetan izan ezik; halakoetan, aurretiaz eskabidea eskatuz, gehiago izan daitezke.

3) Eskabidean, nahitaez azeria zein egunetan eta zein udalerritan ehizatu nahi den adierazi behar da.

4) Baimenak eta harrapaketa-agiriaren inprimakia Ehiza eta Ibaietako Arrantza Kudeatzeko Atalean jasoko dira, 2015eko urriaren lehen astean.

5) Ehiza-eguna hasi aurretik, abisua eman behar zaio Base Gorriari, bai eta jakinarazi ere zer udalerri eta alderditara joango den.

Izan daitezkeen arriskuak saihesteko, ehizaldian parte hartuko duen kuadrillak kartel batzuk jarri beharko ditu ehizaldia egingo den tokiaren sarbideetan. Kartel horiek III. eranskineko ereduaren araberakoak izango dira, eta, haietan adieraziko da ehizaldi bat egiten ari dela, mendiaren gainerako erabiltzaileek jakin dezaten ehizaldi bat egiten ari dela.

Se hace constar que únicamente se entenderá que se está cazando esta especie, cuando el cazador o cazadora se encuentre con perro, en la modalidad «al salto», siendo denunciable cualquier otra práctica cinegética al respecto.

En los municipios de Artea y Areatza dentro de los límites de Parque Natural de Gorbeia, y en los municipios de Güeñes y Galdames dentro de los límites del Biotopo Protegio de Meatzaldea; la caza de esta especie solo se permitirá con autorización expresa. Estás, que serán gratuitas, se expedirán a través de las Oficinas Comarcales Agrarias y de la oficina de la Sección de Caza y Pesca continental. Los días hábiles serán los lunes, martes, jueves y sábados.

2.2.5. Aves migratorias: El periodo hábil será el comprendido entre el 12 de octubre de 2015 y el 31 de enero de 2016. En dicho periodo podrá practicarse la caza todos los días de la semana.

Se establece un cupo máximo para las especies migratorias de 30 ejemplares por persona y día, sin perjuicio de lo establecido en el párrafo segundo del artículo 3.1.

2.2.6. Palomas y zorzales migratorios en pasos tradicionales: En las líneas de paso no sujetas a reglamentación especial el periodo hábil será el comprendido entre el 12 de octubre de 2015 y el 31 de enero de 2016. Durante este periodo podrá cazarse todos los días de la semana.

En estas líneas los puestos de tiro, tanto aislados como en línea, serán fijos y habrán de estar emplazados necesariamente en las cumbres o zonas altas de las laderas quedando prohibídas las escopetas volantes y transitar fuera de los puestos con las armas desenfundadas

Por lo que se refiere a las líneas de pase con reglamentación especial se regularán mediante Orden Foral del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

2.2.7. Aves acuáticas: El periodo hábil será el comprendido entre el 12 de octubre de 2015 y el 31 de enero de 2016, pudiéndose practicar la caza todos los días de la semana.

2.2.8. Zorro (Vulpes vulpes): El periodo hábil será el comprendido entre el 12 de octubre de 2015 y el 31 de enero de 2016, siendo los días hábiles los jueves, sábados, domingos y festivos y el horario hábil de 8:00 a 17:00 horas.

Se podrán realizar batidas para lo que se establece la siguiente normativa:

1) Las personas interesadas en practicar esta modalidad de caza deberán presentar en la Sección de Caza y Pesca Continental del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, Avda. Lehendakari agirre, 9, 2.º, 48014-Bilbao, una solicitud de acuerdo al modelo oficial (www.bizkaia.net) en la última quincena de agosto, con el fin de crear un registro de cazadores y cazadoras.

2) En las solicitudes se indicará el número de componentes de la cuadrilla, con expresión de su nombre, apellidos, sexo y DNI, además de la dirección y teléfono de contacto de la persona responsable de cuadrilla así como de su suplente. La cuadrilla no podrá ser inferior a tres ni superior a cuatro personas, excepto en cotos de caza y en zonas de caza controlada en las que su número podrá ser mayor previa solicitud.

3) En la solicitud es imprescindible indicar las fechas y municipio donde se pretende realizar la caza del zorro.

4) Las autorizaciones junto con el impreso de parte de capturas se retirarán en la Sección de Caza y Pesca Continental la primera semana de octubre de 2015.

5) Antes de iniciar la jornada de caza se deberá avisar de tal circunstancia a Base Gorria indicando cual es el paraje y el municipio donde se va a acudir.

Al objeto de prevenir posibles riesgos, antes de iniciar cada batida, la cuadrilla que tome parte en la misma deberá colocar carteles indicadores según el modelo del anexo III en los accesos a la mancha a batir, avisando que se está celebrando una batida para que los demás posibles usuarios y usuarias del monte tengan conocimiento de ello.

6) Azeria harrapatzeko uxaldi bat egiten bada aprobetxamendu-araubide erkideko edo libreko aldeetan, uxaldi hori eten egingo da, bertan badaude baldin eta basurdeak harrapatzen ari den kuadrilla bateko kideak.

7) Eskatzaile guztiak izango dira ehizaren ondorioz edo hura garatzen den bitartean gerta daitezkeen arau-hauste edo kalteen erantzule solidarioak.

8) Denboraldia bukatutakoan eta 2016ko otsailaren 28a baino lehen, Ehiza eta Ibaietako Arrantza Atalera eramango dira harrapaketen abisuak, behar bezala beteta; bertan ehiza-eguneko datuok adierazi behar dira: data, harrapatutako animalia-kopurua, sexua, garapen-egoera aipatuta, gaztea edo heldua den, eta egindako bestelako oharrak, batez ere azeriaren hazteri edo sarnaren agerpenari buruzkoak. Animaliarik harrapatu ez bada, zero batez adierazi behar da.

Nahitaez aurkeztu behar da espezie horren harrapaketa-agiria, ehizan parte hartu ez bada ere eta gainerako espezieen harrapaketa-agiriak aurkeztu badira ere, foru agindu honen zortzigarren artikuluan jasotzen den bezala.

2.3. Ehiza nagusia.

2.3.1. Basurdea (Sus scrofa): Ehizatzeko aldia 2015eko irailaren 6tik 2016ko otsailaren 21erakoa izango da, eta ehizatzeko egunak, oro har, igandeak izango dira.

Urriaren 27a arte ehizatu ahal izango den ordutegia: 7:30etik 19:00etara; armak 18:30erako zorro barruan egon behar dira.

Urriaren 28tik otsailaren 21a arte ehizatu ahal izango den ordutegia: 8:00etatik 18:00etara; armak 17:30erako zorro barruan egon behar dira.

Ehiza-esparruetan eta kontrolpeko ehiza-aldeetan, berriz, igandea edo larunbata ere ehiza-egun izenda daiteke, betiere inguruabar urteko ehiza planean proposatu bada eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak onetsiz gero. Hala ere, basurdeen eraginez nekazaritza gehien kaltetzen den inguruetan, igandeetan ez ezik larunbatetan ere egin ahal izango da ehiza. Ildo horretatik, zozketa egiten denean adieraziko da zein lekutan egin daitekeen ehiza egun bi horietan.

Ehizaldi baimenduetan eta horretarako ezarritako lekutan bakarrik ehizatu ahal izango da basurdea.

Orkatz-emeak ehizatu ahal izango dira denboraldi honetan, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailean espezie honetarako dagoen jarraipen planaren arabera, 2015eko azaroaren 15etik 2016ko urtarrilaren 31 arte. Horretarako, modalitate hori praktikatu nahi dutela adierazi behar dute, eskaeraren eredu ofizialean, dagokion laukian. Basurdearen ehiza-eremuen zozketa egiten den egunean, ehiza-jarduera hori egiteko beharrezko informazioa emango da.

Basurdea ehizatzeko, arauon arabera jokatuko da:

1) Basurdearen ehiza ehiztariz osotutako koadrilen bidez eta era egokian zonaka mugatutako ehiza-lekuetan burutuko da. Ehiza mota hori egin gura duten kuadrilla guztiek eskabidea aurkeztu behar dute Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko Ehiza eta Ibaietako Arrantza Kudeatzeko Atalean (Lehendakari Agirre etorbidea, 9, 2. solairua, 48014-Bilbo), foru agindu hau argitaratu ondorengo egutegiko hamabost (15) egunen barruan. Horretarako, eredu ofiziala erabili behar da (www.bizkaia.net).

   Eskabideekin batera, kuadrillako kide guztien NANaren fotokopia egiaztatua aurkeztu behar da. Iazko ehiza-denboraldian (2014/2015) basurdearen modalitatean ehizan egin zuten koadrilek kuadrillan izan diren alta eta bajak baino ez dute aurkeztu behar —horretarako, eredu ofiziala erabiliko dute—. Altarik izan bada, NANa aurkeztu behar da. Edozein kasutan ere, nahitaezkoa izango da NANaren kopia aurkeztea, iazko denboraldian kuadrilla bateko kide izan arren aurkeztutako NANaren kopian beste helbide bat agertzen bada.

6) Cuando se esté desarrollando una batida de zorro en los terrenos cinegéticos de aprovechamiento común, se interrumpirá la misma si en la zona se encuentran miembros de una cuadrilla de jabalí cazando esta especie.

7) De las infracciones o daños que se originen con ocasión o durante el desarrollo de la caza serán responsables solidarias todas las personas peticionarias.

8) Finalizada la temporada, y antes del 28 de febrero de 2016, se entregarán en la Sección de Caza y Pesca Continental los partes de capturas cumplimentados, indicando el día disfrutado de caza con expresión de la fecha, capturas realizadas, sexo con mención del estadío de desarrollo: joven o adulto, así como las observaciones realizadas especialmente referentes a la presencia de sarna en la población de zorros. En el caso de que no hayan existido capturas se indicará con un cero.

La entrega del parte de capturas de esta especie será obligatoria e independiente de no asistir a cazar y de otros partes para el resto de especies tal y como consta en el artículo ocho de la presente Orden Foral.

2.3. Caza mayor.

2.3.1. Jabalí (Sus scrofa): El periodo hábil será el comprendido entre el 6 de septiembre de 2015 y el 21 de febrero de 2016, siendo los días hábiles, con carácter general, los domingos

El horario hábil hasta el 27 de octubre: de 7:30 a 19:00 horas, debiendo estar las armas enfundadas antes de las 18:30.

El horario hábil del 28 de octubre a 21 de febrero: de 8:00 a 18:00 horas, debiendo estar las armas enfundadas antes de las 17:30.

En cotos de caza y zonas de caza controlada se podrá habilitar el domingo o el sábado como día hábil siempre y cuando se proponga esta circunstancia en el plan de seguimiento cinegético y se apruebe por el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural. No obstante, en las zonas con mayor incidencia de daños en la agricultura por la acción del jabalí, se podrá cazar además de los domingos los sábados. En este sentido, el día de la celebración del sorteo se indicarán las manchas donde se podrá cazar ambos días.

Únicamente se podrá cazar esta especie en batidas autorizadas y en las manchas establecidas al efecto.

En la presente temporada, se podrán abatir ejemplares hembras de corzo de acuerdo al plan de seguimiento que se dispone para esta especie el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural en el periodo comprendido entre el 15 de noviembre de 2015 y el 31 de enero de 2016. Para ello, deberán notificar su intención de practicar esta modalidad en la casilla habilitada al efecto en el modelo oficial de solicitud. El día de la celebración del sorteo de manchas de jabalí se proporcionará la información necesaria para desarrollar esta actividad cinegética.

La caza del jabalí se realizará de acuerdo con las siguientes normas:

1) La caza del jabalí se realizará mediante cuadrillas de personas cazadoras en unas manchas de caza correctamente zonificadas. Todas las cuadrillas interesadas en practicar esta modalidad de caza deberán presentar en la Sección de Caza y Pesca Continental, del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, Avda. Lehendakari Agirre 9, 2.º, 48014-Bilbao, una solicitud de acuerdo al modelo oficial (www.bizkaia.net) en el periodo comprendido entre la publicación de esta Orden Foral y los siguientes quince (15) días naturales.

   Las solicitudes deberán presentarse acompañadas con fotocopia del DNI de todas las personas componentes de la cuadrilla. Aquellas cuadrillas que participaron en esta modalidad cinegética la pasada temporada 2014/2015 únicamente deberán presentar, de acuerdo a un modelo oficial, las altas y bajas de la misma, debiendo en el primer caso adjuntar el DNI La aportación de este documento será preceptiva para aquellas personas integrantes de una cuadrilla la pasada temporada y que en el DNI aportado conste en un domicilio diferente al actual.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak kuadrillen erregistroa sortu du; erregistro horretan, bereizi egiten dira Bizkaiko kuadrillak eta Bizkaitik kanpokoak. Kuadrilla bat Bizkaikotzat hartzeko, ehiztarien %85ek, gutxienez, bizkaitarrak izan behar dute.

Ehiztaria bizkaitarra den erabakitzeko, kontuan hartuko da ehiztariaren NANan zein helbide dagoen, kontrolpeko ehiza-aldeetan izan ezik. Izan ere, bazkidea izatea eta bizkaitarra izatea baliokideak izango dira alde horietan.

Kuadrilla berrien altak ere irizpide horren arabera sailkatuko dira.

Kuadrilla bakoitzak, gutxienez, hamabost kide izango ditu, eta, gehienez, berrogeita bost. Ehiza-egun berean, ezin izango dira ehizan aritu hogeita hamabost kide baino gehiago, ez eta hamabi ehiztari baino gutxiago. Kuadrilletako kide guztiek indarrean izan behar dute Euskal Autonomia Erkidegoan ehizan aritzeko beharrezko dokumentazioa, bai kuadrillak inskribatzen direnean bai ehiza-denboraldian zehar.

2) Eskabideak aztertu ondoren, baimenak emateko orduan, aintzat hartuko da honako irizpide hau: basurdearen ehizan parte hartzen duten koadrilek basurdeak nekazaritzari eragindako kalteetarako asegurua kontratatzea.

Ehiza-lekuak zozketa bidez banatuko dira koadrilen artean. Zozketan ateratako zenbakia duen Bizkaiko kuadrilla izango da lehenengoa ehiza-lekua aukeratzen; ondoren, Bizkaiko gainerako koadrilek modu korrelatiboan aukeratuko dute ehiza gunea. Prozesu hori errepikatu egingo da, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren erregistroan dauden Bizkaiko kuadrillen kopuruaren arabera. Ondoren, Bizkaikoak ez diren koadrilen arteko zozketa egingo da. Kuadrilla horiek behin bakarrik aukeratu ahal izango dute, ateratzen den zenbakiaren araberako hurrenkeran Ondoren, Bizkaiko lehenengo kuadrilla hasiko da aukeratzen, lehen azaldu den prozesua berriro eginez.

Kuadrillek ezin izango dute inola ere aukeratu ehiza-leku gehiago denboraldiko ehiza-egunen kopurua baino. Baldin eta ehiza-lekuak hartu gabe geratzen balira Bizkaiko koadrilek aukeraketa egin ostean, beste kuadrilla batzuek hautatu ahal izango dituzte, baina ehiza-egunen kopurua gainditu gabe. Kuadrilla batek ezin izango du, inolaz ere, ehiza-egun berean ehiza-leku bat baino gehiagoeduki.

Onartutako eskabideen artean hautapen-hurrenkera ezartzeko zozketa Derioko Nekazaritza Eskolako Hitzaldi Aretoan egingo da, irailaren 2an, goizeko 9:00etan.

Espazioa txikia dela eta, kuadrilla bakoitzeko bi kide bakarrik joan daitezke zozketa horretara.

3) Norbait kuadrilla batean baino gehiagotan agertzeak ekarriko du pertsona hori dagoen eskabide guztiak baztertzea.

4) Talde bakoitzean, gehienez, ehiztari bi ordeztu ahal izango dira, baina aurretik, eta ehizan hasi baino lehen Base Gorriari jakinarazi beharko zaio inguruabar hori.

5) Zozketan parte hartu eta ehizatzeko ehiza-eremu jakin batzuk aukeratu dituzten kuadrillak, erreserban hartutako uxaldien %70 gutxienez egiten ez badituzte, besterik gabe baimen barik geratuko dira hurrengo hiru urteetan. Aurreko hori gertatuz gero, kuadrillako kideek ezin izango dute beste kuadrilla batean parte hartu epe horretan.

El Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural creará un registro de cuadrillas para la vigente temporada, las cuales se clasifican atendiendo a su condición de cuadrillas Bizkainas y resto de cuadrillas. Las cuadrillas Bizkainas están definidas por tener entre sus componentes el 85 por ciento o más de personas Bizkainas.

La condición de bizkaino o bizkaina vendrá dada por el domicilio que conste en el DNI, excepto en las zonas de caza controlada donde la condición de socio o socia se equiparará a la de bizkaino/bizkaina.

Las altas de nuevas cuadrillas se clasificarán con estos mismos criterios.

Las cuadrillas deberán estar formadas por un mínimo de quince y un máximo de cincuenta miembros, no pudiendo estar cazando en cada jornada de caza más de treinta y cinco miembros y nunca menos de doce cazadores. Todas las personas integrantes de las cuadrillas deberán tener en vigor la documentación necesaria para ejercitar la caza en la Comunidad Autónoma Vasca en el momento de la inscripción de las cuadrillas, así como durante la temporada de caza.

2) Una vez examinadas las solicitudes se tendrá en cuenta como criterio para adjudicar las autorizaciones, la contratación de un seguro de daños por jabalí a la agricultura por parte de las cuadrillas que participen en la caza de esta especie.

El sorteo será el método de asignación de las manchas a las diferentes cuadrillas. La elección de las manchas la iniciará aquella cuadrilla bizkaina que tenga el número coincidente con el resultante del sorteo, pasando correlativamente a elegir el resto de cuadrillas con esta condición. Esta secuencia se repetirá una vez más supeditada al número de cuadrillas bizkainas obrantes en el registro del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural. Posteriormente, se hará un sorteo de las cuadrillas de condición no bizkainas. Con el número resultante se procederá a la elección por todas las cuadrillas de esta condición una sola vez. Seguidamente comenzará la elección la primera cuadrilla bizkaina repitiendo el proceso como se ha expuesto anteriormente.

En ningún caso las cuadrillas podrán elegir un número de manchas superior al de las jornadas hábiles en la temporada. Si tras la elección de las cuadrillas Bizkainas hubiese manchas libres, podrán ser elegidas por las otras cuadrillas, sin que en ningún caso se supere el número de jornadas hábiles. En ningún caso, una cuadrilla podrá tener más de una mancha reservada en una misma jornada hábil.

El sorteo para fijar el orden de elección entre las solicitudes admitidas se realizará en el Salón de Actos de la Escuela Agraria de Derio el día 2 de septiembre a las 9:00 horas.

A dicho sorteo, por motivos de espacio, sólo podrán asistir dos miembros de cada cuadrilla.

3) La repetición de una persona en más de una cuadrilla supondrá la anulación de todas las solicitudes en las que figure.

4) Se admitirá un máximo de sustituciones en cada cuadrilla de dos personas cazadoras, pero siempre avisando previamente a Base Gorria de esta circunstancia y antes de iniciar la jornada de caza.

5) Las cuadrillas que, habiendo tomado parte en el sorteo y elegido determinadas manchas para cazar, no realicen, al menos, el 70%, de las batidas que habían reservado, causarán baja automáticamente para el año siguiente y en caso de reiteración en el incumplimiento, en los tres años sucesivos. De darse esta circunstancia, los miembros de la cuadrilla no podrán formar parte de ninguna otra durante ese periodo.

6) Ezin izango dira inoiz ere kuadrilla bi edo gehiagoko kideak elkartu uxaldi bat egiteko. Baliabide Naturalak, Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuko Ehiza eta Ibaietako Arrantza Atalera aurkezten den zerrendan ageri diren kuadrillako kide baimenduek baino ezin izango dute parte hartu uxaldietan.

7) Ehiza-lekuen planoak www.bizkaia.net web orrialdean daude.

8) Ehizaldietan, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko baso agente bat egon ahal izango da.

9) Ehiza-eguna hasi aurretik, Base Gorriari abisatu behar zaio, zein ehiza-eremutara joango den jakitera emanez. Uxaldia egiteko unean, berriro ere Base Gorriari jakinaraziko zaio zein ingurutan egingo den. Lekua zehatzmehatz adierazi behar da, bertara erraz eta gutxienez ordubete lehenago heldu ahal izateko.

Basurdeek kalteak sortu dituzten tokietan edo aldeetan hasi beharko dituzte kuadrillek ehiza-egun bakoitzeko miaketa-lanak, nahitaez. Ehiza eta Ibaietako Arrantza Kudeatzeko Atalak jakinaraziko die zein diren toki horiek.

Uxaldia egin ez bada, Base Gorriari jakinarazi beharko zaio, nahitaez.

10) Izan daitezkeen arriskuak saihesteko, ehizaldian parte hartuko duen kuadrillak kartel batzuk jarri beharko ditu ehizaldia egingo den eremuaren sarbideetan. Kartel horiek II. eranskineko ereduaren araberakoak izango dira, eta, bertan, adieraziko da ehizaldi bat egiten ari dela, mendiaren gainerako erabiltzaileek ehizaldi bat egiten ari direla jakin dezaten. Helburu bererako, derrigorrezkoa izango da uxaldiko parte-hartzaile guztiek txaleko fosforeszenteak janztea. Era berean, sailak erriflea erabiltzea debeka dezake toki edo aldi jakin batzuetan, bertako segurtasun-baldintzen arabera hala egitea komeni bada.

11) Uxaldi batean parte hartzen duen ehiztari bakoitzak arma bakarra eraman dezake. Uxatzaileek zein txakurzainek ezingo dute inola erabili su-armarik.

12) Kuadrilla mendian, ehiza-tokiaren barruan, ehizarako txakurrak, armak eta abar erabiltzeko prest dituen unetik joko da uxaldia egiten ari dela.

Datos temporada 2015/2016

Resumen sorteo		Septiembre- octubre	Noviembre
Solicitudes	Socios o socias		
	No socios o socias		
Permisos Expedidos	Socios o socias		
	No socios o socias		

Precio día socio o socia: ……
Precio día no socio o socia: ……
Otros precios: ……

Balance económico

Concepto	Gastos	Ingresos

Resumen de capturas

Línea	N.º puestos	P. Torcaces	P. Zuritas	Malvices

Incidencias, sugerencias y observaciones …… ……. adjuntar informe si es preciso o escribir al dorso).

V ERANSKINA
DERRIGORREZKO SEINALE EREDUA



VI ERANSKINA
DERRIGORREZKO SEINALE EREDUA



ANEXO V
MODELO DE SEÑAL OBLIGATORIA



ANEXO VI
MODELO DE SEÑAL OBLIGATORIA



Ekainaren 4ko 1970/2015 Foru Aginduaren jakinarazpena, AYDA EXPA 00202/2015 espedienteari buruzkoa.

«AYDA EXPA 00202/2015» espedientean jakinarazpenetarako duen helbidean egin nahi izan zaio jakinarazpena J.A.CH.S.-i (NAN: 79045723J), baina ezin izan zaio egin Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.1 eta 59.2 artikuluen arabera; beraz, aipaturiko 30/1992 Legeko 59.4 artikulua betetzeko, honako iragarki hau argitaratzen da, Nekazaritza Saileko foru diputatuaren 2015eko ekainaren 4ko 1970/2015 Foru Aginduaren jakinarazpena izan dadin.

Ebazpen honi dagokion espedientea Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuan aztertu ahal izango da.

Bilbon, 2015ko urtarrilaren 23an.—Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatua, Elena Unzueta Torre

(I-1333)

Notificación de Orden Foral 1970/2015 de 4 de junio del expediente AYDA EXPA 00202/2015.

Intentada la notificación a J.A.CH.S., DN.I.: 79045723J, con el domicilio a efectos de notificación que aparece en el expediente «AYDA EXPA 00202/2015», no se ha podido practicar conforme a los artículos 59.1 y 59.2 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común 30/1992, de 26 de noviembre, por lo que en cumplimiento del artículo 59.4 de la citada Ley 30/1992, se publica el presente anuncio a fin de que sirva de notificación de la Orden Foral 1970/2015, de 4 de junio, dictada por la diputada foral del Departamento de Agricultura.

El expediente correspondiente a la presente resolución podrá ser examinado en el Servicio de Desarrollo Agrario.

En Bilbao, a 23 de julio de 2015.—La diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta Torre

(I-1333)

Ekainaren 4ko 1997/2015 Foru Aginduaren jakinarazpena, AYDA EXPA 03123/2014 espedienteari buruzkoa.

«AYDA EXPA 03123/2014» espedientean jakinarazpenetarako duen helbidean egin nahi izan zaio jakinarazpena J.B.D.S.G, -i (NAN: 50870020T), baina ezin izan zaio egin Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.1 eta 59.2 artikuluen arabera; beraz, aipaturiko 30/1992 Legeko 59.4 artikulua betetzeko, honako iragarki hau argitaratzen da, Nekazaritza Saileko foru diputatuaren 2015eko ekainaren 4ko 1997/2015 Foru Aginduaren jakinarazpena izan dadin.

Ebazpen honi dagokion espedientea Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuan aztertu ahal izango da.

Bilbon, 2015ko urtarrilaren 23an.- Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatua, Elena Unzueta Torre

(I-1334)

Notificación de Orden Foral 1997/2015 de 4 de de junio del expediente AYDA EXPA 03123/2014.

Intentada la notificación a J.B.D.S.G, DN.I.: 50870020T, con el domicilio a efectos de notificación que aparece en el expediente «AYDA EXPA 03123/2014», no se ha podido practicar conforme a los artículos 59.1 y 59.2 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común 30/1992, de 26 de noviembre, por lo que en cumplimiento del artículo 59.4 de la citada Ley 30/1992, se publica el presente anuncio a fin de que sirva de notificación de la Orden Foral 1997/2015, de 4 de junio, dictada por la diputada foral del Departamento de Agricultura.

El expediente correspondiente a la presente resolución podrá ser examinado en el Servicio de Desarrollo Agrario.

En Bilbao, a 23 de julio de 2015.—La diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta Torre

(I-1334)

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 140/2015 FORU DEKRETUA, uztailaren 28koa; honen bidez Sozietateen gaineko Zergaren Araudia, Bizkaiko Foru Aldundiak abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa, aldatu da.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarriak zerga horren eremuan kultura sustatzeko aplikatzen diren pizgarriak arautzen ditu. Pizgarri horietan hauxe nabarmendu behar da: Espainiako film luzeetan edo fikziozko, animaziozko edo dokumental erako ikus-entzunezko serieetan egiten diren inbertsioek, serie moduko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisikoa egiteko modua eskaintzen badute, kuota likidoan kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dute.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren Batzar Nagusietako izapideak amaitzen ari zirela, Europako Batzordeak estatuek obra zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen arloko beste produkzio batzuetarako ematen dituzten laguntzei buruzko komunikazioa argitaratu zuen (2013/C 332/01) (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, C saila, 332. zenbakia, 2013ko azaroaren 15ekoa). Bertan Batzordeak baldintza gehiago ezarri zituen neurriak Europar Batasunaren Funtzionamenduaren Ituneko 107. artikuluarekin bateragarriak direla adierazteko.

Komunikazio horretan murrizpen gehiago ezarri zitzaizkien produkzio zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen arloko produkzioetarako gehieneko laguntzei eta horren ondorioz gure arautegia gehieneko kopuru berrietara egokitu behar izan da, Europar Batasunaren Zuzenbidearekin talkarik gerta ez dadin.

Departamento de Hacienda y Finanzas

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 140/2015, de 28 de julio, por el que se modifica el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por medio del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 203/2013, de 23 de diciembre.

La disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, regula los incentivos para el fomento de la cultura que son aplicables en el mencionado impuesto, destacando entre ellos el establecimiento de una deducción de la cuota líquida para inversiones en producciones españolas de largometrajes cinematográficos y de series audiovisuales de ficción, animación o documental, que permitan la confección de un soporte físico previo a su producción industrial seriada.

En los momentos finales de la tramitación parlamentaria de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, la Comisión Europea publicó la Comunicación de la Comisión sobre la ayuda estatal a las obras cinematográficas y otras producciones del sector audiovisual (2013/C 332/01) («Diario Oficial de la Unión Europea», serie C, número 332, del 15 de noviembre de 2013), en la que se establecen requisitos adicionales a los anteriormente existentes para la declaración de compatibilidad de las medidas que pueden tener encaje en el artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

Esta Comunicación ha incorporado limitaciones adicionales en cuanto a la intensidad máxima de la ayuda para producciones cinematográficas y audiovisuales, que no estaban previstas con anterioridad, lo que ha hecho preciso adaptar la regulación a esos umbrales máximos a los efectos de evitar cualquier posibilidad de colisión de nuestra regulación con el Derecho de la Unión Europea.

Aldaketa horiek 11/2013 Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarrian txertatu dira martxoaren 2ko 3/2015 Foru Arauaren bitartez. Foru arau honek Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zenbait foru arau aldatu ditu eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan sortuko ditu ondoreak.

Aipatutako aldaketak egin ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak zerga-pizgarriaren berri eman dio Europako Batzordeari, Europar Batasunaren Funtzionamenduaren Ituneko 108. artikuluko 3.idatz-zatian xedatuak ondoreak sor ditzan, kontuan edukita bete ezean kenkariaren aplikazioa eten dezakeen baldintza bat egongo dela indarrean harik eta Europako Batzordeak Europar Batasunaren Zuzenbidearekin bateragarria denez ebatzi arte.

Europako Batzordeak adierazi du aldatutako zerga-pizgarria batasunaren barruko merkatuarekin bateragarria den estatu-laguntza dela Europar Batasunaren Funtzionamenduaren Ituneko 107. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, baldin eta aurrean aipatutako komunikazioan ezarritako baldintza guztiak betetzen badira.

Europako Batzordeak, 2015eko uztailaren 15eko C(2015) 5032 azkena Erabakiaren bitartez, ulertu du zerga-pizgarria bateragarria dela barne-merkatuarekin, SA.40885 (2015/N) estatu-laguntzari dagokionez; beraz, egiaztatu da ekoizpen zinematografiko eta ikus-entzunezkoetarako kenkariaren aplikaziorako baldintza etengarria, Europar Batasunaren zuzenbidearekin bateragarritzat jo baita.

Nolanahi ere, arautegian ezarri diren kontzeptu eta baldintza batzuk araudian zehaztu behar dira, ezinbestekoa baita gure arautegia moldatzea obra zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen arloko beste produkzio batzuetarako estatuek ematen dituzten laguntzei buruz Europako Batzordeak emandako komunikaziora.

Horretarako, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko azken xedapenetako bigarrenean ezarri da Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari baimena eman zaiela foru arau hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Foru dekretu hau izapidetzeko ondokoetan ezarritakoa aplikatu da: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, generoaren araberako eragina aldez aurretik ebaluatzeari buruzkoa.

Horregatik guztiagatik, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2015eko uztailaren 28ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DA:

Artikulu bakarra. Aldarazpena: Sozietateen gaineko Zergaren Araudia, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuak onetsia.

Beste xedapen gehigarri bat, bederatzigarrena, erantsi zaio Sozietateen gaineko Zergaren Araudiari (araudi hau abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiak); hona xedapen berria:

«Bederatzigarrena.—*Kultura sustatzeko pizgarriak*

1. Zergaren Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarritako kenkaria aplikatzeko ezinbestekoa da ondoko baldintza hauek betetzea:

a) Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren ziurtagiri bi lortu behar dira: batetik, produkzioaren nazionalitate-ziurtagiria; bestetik, produkzioaren edukia kulturala dela, egoera kulturalarekin lotuta dagoela edo Espainiako lurraldean ikusgarri dauden obra zinematografikoen kultura askotarikotasunerako ekarpena dela adierazten duen ziurtagiria.

Esas modificaciones han sido incorporadas en la regulación de la disposición adicional decimoquinta por medio de la Norma Foral 3/2015, de 2 de marzo, de modificación de diversas Normas Forales en materia tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, con entrada en vigor para los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2014.

El incentivo fiscal, una vez incorporadas esas modificaciones, ha sido notificado por parte de la Diputación Foral de Bizkaia a la Comisión Europea a los efectos de lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, teniendo presente la existencia de una condición suspensiva de la aplicación de la deducción hasta que la Comisión Europea se haya pronunciado sobre la compatibilidad de la misma con el Derecho de la Unión Europea.

La Comisión Europea ha declarado que el incentivo fiscal modificado es una ayuda estatal compatible con el mercado interior a los efectos de lo dispuesto en el artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, siempre que se garantice el cumplimiento de todos los requisitos establecidos en la Comunicación citada.

La Comisión Europea ha considerado compatible con el mercado interior este incentivo fiscal por medio de la Decisión C (2015) 5032 final, de 15 de julio de 2015, en relación con la ayuda estatal SA.40885 (2015/N), por lo que se ha verificado la condición suspensiva para la aplicación de la deducción para producciones cinematográficas y audiovisuales al haberse considerado compatible con el Derecho de la Unión Europea.

En cualquier caso, la regulación incorpora una serie de conceptos y requisitos que deben ser objeto de precisión reglamentaria a los efectos de completar la adecuación de nuestra normativa a la mencionada Comunicación de la Comisión sobre la ayuda estatal a las obras cinematográficas y otras producciones del sector audiovisual.

A estos efectos, la disposición final segunda de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, establece que se autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia y al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo y ejecución de esta Norma Foral.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 28 de julio de 2015

SE DISPONE:

Artículo Único.—Modificación del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 203/2013, de 23 de diciembre.

Se añade una nueva disposición adicional novena al Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 203/2013, de 23 de diciembre, quedando redactada como sigue:

«Novena.—*Incentivos para el fomento de la cultura*

1. Para la aplicación de la deducción establecida en el apartado 1 de la disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral del impuesto, será necesario el cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Que la producción obtenga el correspondiente certificado de nacionalidad y el certificado que acredite el carácter cultural en relación con su contenido, su vinculación con la realidad cultural o su contribución al enriquecimiento de la diversidad cultural de las obras cinematográficas que se exhiben en territorio español, emitidos por el Instituto de Cinematografía y de las Artes Audiovisuales.

b) Produkzioaren kopia bat, egin berria eta inolako akatsik ez daukana, utzi behar da Filmoteca Españolan edo dena delako autonomia erkidegoak modu ofizialean onartutako zinematekan, urriaren 19ko CUL/2834/2009 Agindua ezarri den bezala (horren bidez hainbat arau ezarri dira errege dekretu hau aplikatzeko: 2062/2008 Errege Dekretua, abenduaren 12koa, Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legea garatu duena filmen kostua eta ekoizlearen inbertsioa onartzea, estatu-laguntzak arautzen dituzten oinarriak ezartzea eta Enpresa Zinematografikoen eta Ikus-entzunezkoen Arloko Enpresen Erregistro Administratiboaren egitura direla eta.

2. Zergaren Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarritako kenkaria aplikatzeko, ondoko ikus-entzunezko obrak zailtzat hartuko dira:

a) Film laburrak.

b) Zuzendarien lehen bi lanak.

c) Jatorrizko bertsio bakarra euskarazkoa den lanak.

d) Aurrekontu urriko lanak, hain zuzen ere ekoizpen-kostua 500.000 eurotik gorakoa ez dutenak.

e) Gaia dela eta edo ekoizpenaren inguruko konturen batengatik merkaturatzen gaitz duten lanak.

Letra honetako kasuetan zergadunak frogatu beharko du lanak merkaturatzeko eragozpenak dituela. Lana zailtzat jotzeko eskatu beharko dio Zerga Administrazioari kenkaria aplikatzeko eskubidea egiaztatzen duen lehen zergaldia amaitu baino lehen.

3. Zergadunak ondokoak aurkeztu beharko ditu: batetik, Zergaren autolikidazioa, Zergaren Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarritako kenkariari heltzen diola adierazten duena; bestetik, lana egiteko lortutako beste laguntza edo diru-laguntza publiko guztien zerrenda, aurrean aipatutako idatz-zatian gehieneko ekarpenaz ezarritakoa betetzen denez zehazteko.

4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 94. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Zergaren Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian arututako kenkaria aplikatzeko eskubidea egiaztatzen duten zergadunak ados egongo dira kenkariaren datuen berri ematearekin, estatuek obra zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen arloko beste produkzio batzuetarako ematen dituzten laguntzei buruz Europako Batzordeak emandako komunikazioko 52. idatz-zatiko 7. zenbakian ezarritakoarekin bat etorriz (2013/C 332/01), Batzordearen 2014/C 198/02 komunikazioak eragindako aldaketaren arabera (komunikazio honen bidez Batzordeak Europar Batasunaren gidalerro hauei buruz emandako komunikazioak aldatu dira: banda zabala azkar hedatzeko estatu-laguntzei buruzko arauak aplikatzeko gidalerroak; eskualde-xedea duten 2014-2020 aldiko estatu-laguntzei eta obra zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen arloko beste produkzio batzuetarako estatuek ematen dituzten laguntzei buruzko gidalerroak, arriskua finantzatzeko estatuek ematen dituzten laguntzei buruzko gidalerroak eta estatuek aireportuei eta hegazkin-konpainiei ematen dizkieten laguntzei buruzko gidalerroak).

Horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak aipatutako komunikazioan ezartzen den informazioa argitaratuko du eta argitaratu ere bertan eskatzen den bezala.»

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra.—*2014an egindako inbertsioak*

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, Sozietateen gaineko Zergarenek eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenek (establezimendu iraunkorraren bitartez ari direnek) 2014. urtean edo 2014ko urtarrilaren 1az gero hasitako zergaldian Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duen inbertsioren bat egin badute, eta autolikidazioa nork bere borondatez

b) Que se deposite una copia nueva y en perfecto estado de la producción en la Filmoteca Española o la filmoteca oficialmente reconocida por la respectiva Comunidad Autónoma, en los términos establecidos en la Orden CUL/2834/2009, de 19 de octubre, por la que se dictan normas de aplicación del Real Decreto 2062/2008, de 12 de diciembre, por el que se desarrolla la Ley 55/2007, de 28 de diciembre, del Cine, en las materias de reconocimiento del coste de una película e inversión del productor, establecimiento de las bases reguladoras de las ayudas estatales y estructura del Registro Administrativo de Empresas Cinematográficas y Audiovisuales.

2. Una obra audiovisual tendrá la consideración de difícil a los efectos de la deducción establecida en el apartado 1 de la disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral del impuesto cuando se encuentre en los siguientes supuestos:

a) Los cortometrajes.

b) Las películas que sean la primera o la segunda obra de un director.

c) Las obras cuya única versión original sea en euskera.

d) Las obras de bajo presupuesto, entendiendo por tales aquéllas cuyo coste de producción no supere 500.000 euros.

e) Aquellas obras que por su temática o por otras cuestiones inherentes a la producción encuentren dificultades para introducirse en el mercado.

En el supuesto previsto en esta letra e), incumbirá al contribuyente demostrar las dificultades que la obra encuentra para introducirse en el mercado, debiendo solicitarse a la Administración tributaria su calificación como obra difícil con anterioridad a la finalización del primer período impositivo en que el contribuyente acredite el derecho a la deducción.

3. El contribuyente deberá presentar, junto con la autoliquidación del impuesto en la que se acoja a la deducción establecida en el apartado 1 de la disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral del impuesto, una relación de las demás ayudas o subvenciones públicas recibidas para determinar el cumplimiento de las intensidades máximas de deducción a que se refiere el mencionado apartado.

4. No obstante lo dispuesto en el artículo 94 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, los contribuyentes que acrediten su derecho a la aplicación de la deducción regulada en el apartado 1 de la disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral del impuesto, prestan su consentimiento para la difusión de los datos correspondientes a la deducción acreditada de conformidad con lo previsto en el número 7 del apartado 52 de la Comunicación de la Comisión sobre la ayuda estatal a las obras cinematográficas y otras producciones del sector audiovisual (2013/C 332/01), tal y como ha sido modificado por medio de la Comunicación de la Comisión por la que se modifican las Comunicaciones de la Comisión sobre las Directrices de la Unión Europea para la aplicación de las normas sobre ayudas estatales al despliegue rápido de redes de banda ancha, las Directrices sobre las ayudas estatales de finalidad regional para 2014-2020, la ayuda estatal a las obras cinematográficas y otras producciones del sector audiovisual, las Directrices sobre las ayudas estatales para promover las inversiones de financiación de riesgo, y las Directrices sobre ayudas estatales a aeropuertos y compañías aéreas (2014/C 198/02).

A estos efectos, la Diputación Foral de Bizkaia publicará la información establecida en la mencionada Comunicación en las condiciones requeridas por la misma.»

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Única.—*Inversiones realizadas en 2014*

Los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades o del Impuesto sobre la Renta de No Residentes que operen por mediación de establecimiento permanente que hubieran realizado en el año 2014 o en el período impositivo iniciado a partir del 1 de enero de 2014 inversiones que dan derecho a la deducción establecida en el apartado 1 de la disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, y cuyo

aurkezteko epealdia foru dekretu hau indarrean jarri aurretik amaitu bada, autolikidazio osagarria aurkeztu ahal izango dute 2015eko urriaren 30era arte kenkari hori aplikatzeko eskubidea dutela frogatzeko. Hori eginez gero, aurrean aipatutako foru arauko 128. artikuluko 1. idatz-zatiko u) letrako hautapena Zergaren aitorpena nork bere borondatez egiteko epealdiaren barruan egintzat hartuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.—*Indarrean jartzea*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondoreak.

Bigarrena.—*Gaikuntza*

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari baimena eman zaio foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bilbon, 2015eko uztailaren 28an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-1337)

plazo voluntario de presentación de autoliquidaciones hubiera concluido con anterioridad a la entrada en vigor de este Decreto Foral, podrán presentar en un plazo que concluye el 30 de octubre de 2015 una autoliquidación complementaria a los efectos de acreditar su derecho a la aplicación de la citada deducción, lo que implicará que la opción a que se refiere la letra u) del apartado 1 del artículo 128 de la mencionada Norma Foral se considere ejercitada dentro del plazo voluntario de declaración del impuesto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.—*Entrada en vigor*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» produciendo efectos para los periodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2014.

Segunda.—*Habilitación*

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

En Bilbao, a 28 de julio de 2015.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-1337)

●

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1565/2015 FORU AGINDUA, uztailaren 29koa. Honen bidez, pertsona estatubatuar jakin batzuen finantza-kontuei buruzko urteko aitorpen informatiboa egiteko 290 eredua onesten da.

Espainiako Erresumak eta Ameriketako Estatu Batuek akordio bat izenpetu zuten 2013ko maiatzaren 14an, Madrilen, zeinaren xedea nazioarteko arau fiskalak hobeto betetzeko eta Estatu Batuek atzerriko kontuen tributu-betebeharrei dagokienez duten legea aplikatzeko. Akordio horren xedea nazioarteko zerga-iruzurraren aurkako borrokan aurrerapausoak ematea da, eta, horretarako, tributuen arloko informazioa automatikoki trukatzeko sistema bat ezartzen du, estatu biek elkarri eman beharreko laguntzaren esparruan.

Akordioan ezartzen da, batetik, Espainiako finantza-erakundeek identifikatu egin behar dituztela Estatu Batuetako egoiliarren edo bertako herritarren titulartasunekoak edo kontrolpekoak diren kontuak, eta, bestetik, Espainiako Zerga Administrazioari informazioa eman beharko zaiola urtero finantza-kontu horiei buruz. Duen izaera juridikoa dela eta, akordioa, gainera, zuzenean da loteslea eta nahitaez bete beharrekoa bertan ezartzen diren betebeharrak bete behar dituzten subjektuentzat.

Akordioa bera, bertan ezarritakoarekin bat, modu gradualean aplikatuko da, Zerga Administrazioari informazioa ematera behartuta dauden subjektuei dagokienez. Akordioan aipatzen den informazio guztia lehenengoz 2017. urtean trukatuko dela aurrez ikusten da, 2016. urtean informazioa jakinaraztera behartuta dauden finantza-kontuei dagokienez.

Bizkaiko Lurralde Historikoan, tributuen inguruko betebehar formalak hauetan arautzen dira: batetik, Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan; bestetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetzen dituen Araudian (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen). Bada, araudi hori aldatu egin da orain dela gutxi, informazioa emateko beste betebehar bat sartu baita bertan, informazioa automatikoki trukatzeko proiektuei egokitu ahal izateko elkarren laguntzari buruzko araudia. Horrenbestez, arautu egin da finantza-erakundeek informazioa eman behar dutela erakundeotan irekita dauden finantza-kontuei buruz, baldin eta kontu horiek direla-eta bete egiten badira kasu bakoitzean aplikatu beharreko elkarren laguntzari buruzko araudian zehazten diren inguruabarrak, Arautzen da, gainera, erakundeok identifikatu egin behar dutela kontu horien titulartasuna edo kontrola dutenen egoitza edo herritartasuna, kasu bakoitzean dagokiona.

ORDEN FORAL del diputado foral de Hacienda y Finanzas 1565/2015, de 29 de julio, por la que se aprueba el modelo 290, declaración informativa anual de cuentas financieras de determinadas personas estadounidenses.

El Acuerdo entre el Reino de España y los Estados Unidos de América para la mejora del cumplimiento fiscal internacional y la aplicación de la ley estadounidense de cumplimiento tributario de cuentas extranjeras, firmado el 14 de mayo de 2013 en Madrid, tiene por objeto avanzar en la lucha contra el fraude fiscal internacional y establece un sistema de intercambio automático de información con fines tributarios en el ámbito de la asistencia mutua entre ambos Estados.

Este Acuerdo establece, por un lado, la obligación de las instituciones financieras españolas de identificar las cuentas cuya titularidad o control corresponde a entidades o personas residentes o de ciudadanía estadounidense y, por otro lado, de suministrar anualmente a la Administración tributaria española información sobre dichas cuentas financieras. El Acuerdo además, por su naturaleza jurídica, es directamente vinculante y de obligado cumplimiento para los sujetos a quienes comporta el cumplimiento de obligaciones.

La aplicación del Acuerdo, a tenor de su letra, se introduce de forma gradual, en relación a los sujetos obligados a suministrar la información a la Administración tributaria. El intercambio de la totalidad de la información a que se refiere el acuerdo está previsto por primera vez para 2017, en relación con las cuentas financieras sujetas a comunicación de información en 2016.

En el Territorio Histórico de Bizkaia, las obligaciones formales relativas a los tributos se encuentran reguladas tanto en la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria, como en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales, aprobado mediante Decreto Foral 205/2008, de 22 de diciembre. Este último Reglamento ha sufrido una reciente modificación al efecto de introducir una nueva obligación de información que permite adaptar la normativa sobre asistencia mutua a los proyectos de intercambio automático de información. De esta forma, se regula la obligación de las instituciones financieras de suministrar información sobre cuentas financieras abiertas en ellas, cuando concurran las circunstancias especificadas en la normativa sobre asistencia mutua que resulte de aplicación, así como de identificar la residencia o en su caso nacionalidad, de las personas que ostenten la titularidad o control de las mismas.

1. artikulua.—*290 eredua onestea*

290 eredua onesten da, pertsona estatubatuar jakin batzuen finantza-kontuei buruzko urteko aitorpen informatiboa egitekoa.

2. artikulua.—*290 eredua aurkeztu behar dutenak*

2014ko uztailaren 14ko HAP/1136/204 Aginduko 1. artikuluan ezarritakoaren arabera behartuta dauden subjektuek kasu honetan aurkeztu behar dute 290 eredua: haiek egiten dituzten jarduerak ikuskatzeko eskumena Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Administrazioak esleituta duenean.

3. artikulua.—*290 eredua aurkezteko modua*

290 eredua urtero aurkeztu behar da. Horretarako, mezu informatiko bat bidali behar da, foru agindu honetako 4. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera. Mezuak, gutxienez, 2014ko uztailaren 14ko HAP/1136/204 Aginduko eranskinean zehazten den edukia izan behar du, kontuan hartuta zer ezartzen den HAP/1136/204 Aginduko 4. artikuluko 3. zenbakiko a) letran nahiz 4. zenbakian.

4. artikulua.—*Mezu informatikoen formatua eta diseinua*

Pertsona estatubatuar jakin batzuen finantza-kontuei buruzko urteko aitorpen informatiboa egiteko mezu elektronikoen formatua eta diseinua nahiz haren edukia (2014ko uztailaren 14ko HAP/1136/204 Aginduan definitua) gauzatzeko elementuak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoan Interneten (www.agenciatributaria.es) jasota daudenak izango dira.

5. artikulua.—*290 eredua aurkezteko epea*

Behartuta dauden subjektuek urte bakoitzeko urtarrilaren 1a eta martxoaren 31 bitartean aurkeztu behar dute 290 eredua, aurreaurreko urteko finantza-informazioari dagokionez.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2014. urteari dagokion aitorpen informatiboa 2015eko urtarrilaren 1a eta irailaren 15a bitartean aurkeztu behar da.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2014. urteari dagozkion autolikidazioak aurkezteko aplikatuko da, lehenengoz.

Bilbon, 2015eko uztailaren 29an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

(I-1343)

Artículo 1.—*Aprobación del modelo 290*

Se aprueba el modelo 290, declaración informativa anual de cuentas financieras de determinadas personas estadounidenses.

Artículo 2.—*Obligados a presentar el modelo 290*

Están obligados a presentar el modelo 290 aquellos sujetos obligados conforme a lo dispuesto en el artículo 1 de la Orden HAP/1136/2014, de 14 de julio, sobre los que la Administración Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia tenga atribuida la competencia inspectora de las actividades que desarrollen.

Artículo 3.—*Forma de presentación del modelo 290*

La presentación del modelo 290 se realizará con periodicidad anual, mediante el envío de un mensaje informático de acuerdo con el procedimiento previsto en el artículo 4 de esta Orden Foral y que incluirá, al menos, el contenido al que se refiere el anexo de la Orden HAP/1136/2014, de 30 de junio, teniendo en cuenta lo previsto en la letra a) del apartado 3 y en el apartado 4 del artículo 3 del Acuerdo y en el apartado 1 del artículo 4 de la mencionada Orden HAP/1136/2014.

Artículo 4.—*Formato y diseño de los mensajes informáticos*

El formato y diseño de los mensajes informáticos en que consiste la declaración informativa de cuentas financieras de determinadas personas estadounidenses, así como los elementos en que se concrete el contenido de la misma definido en el anexo de la Orden HAP/1136/2014, de 14 de junio, serán los que en cada momento consten en la sede electrónica de la Agencia Estatal de Administración Tributaria en internet, www.agenciatributaria.es.

Artículo 5.—*Plazo de presentación del modelo 290*

La presentación del modelo 290 se efectuará por los sujetos obligados entre los días 1 de enero y el 31 de marzo de cada año, en relación con la información financiera relativa al año inmediato anterior.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La presentación de la declaración informativa correspondiente al año 2014 se realizará entre el 1 de enero y el 15 de septiembre de 2015.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y será de aplicación por primera vez para la presentación de las declaraciones correspondientes a 2014.

En Bilbao, a 29 de julio de 2015.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

(I-1343)

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila

Oker-zuzenketa, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren uztailaren 8ko 58/2015 FORU AGINDUA, Karrantza-Harana Udaleko idazkari-kontuhartzaile titularra den Iciar Becerra Souto andreari baimena ematen diona Zallako Udaleko idazkari lanpostuan ere une berean jarduteko.

Honako hau dioen lekuan:

«*Lehena:* Karrantza-Haranako Udaleko idazkari-kontuhartzaile titularra den Iciar Becerra Souto andreari baimena ematea Zallako Udaleko idazkari lanpostuan ere une berean jarduteko. Baimenak agindu hau ematen den unetik izango ditu ondorioak.»

Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales

Corrección de errores de la ORDEN FORAL número 58/2015 de 8 de julio, de la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, por la que se autoriza a doña Iciar Becerra Souto, titular del puesto de Secretaría-Intervención del Ayuntamiento de Karrantza-Harana para el desempeño acumulado del puesto de Secretaria del Ayuntamiento de Zalla.

Donde dice:

«*Primero:* Autorizar a Dña. Iciar Becerra Souto, titular del puesto de Secretaría-Intervención del Ayuntamiento de Karrantza-Harana, para el desempeño acumulado del Puesto de Secretaría del Ayuntamiento de Zalla, con efectos a partir de la presente orden foral.»

Honako hau esan behar du:

«Lehena.- Karrantza-Haranako Udaleko idazkari-kontuhartzaile titularra den Iciar Becerra Souto andreari baimena ematea Zallako Udaleko idazkari lanpostuan ere une berean jarduteko. Baimenak agindu hau ematen den unetik, eta 2015eko uztailaren 31ra izango ditu ondorioak.»

Bilbon, 2015eko abuztuaren 3an.—Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua, Ibone Bengoetxea Otaolea

(I-1335)

Debe decir:

«*Primero:* Autorizar a doña Iciar Becerra Souto, titular del puesto de Secretaría-Intervención del Ayuntamiento de Karrantza-Harana, para el desempeño acumulado del Puesto de Secretaria del Ayuntamiento de Zalla, con efectos a partir de la presente orden foral y hasta el 31 de julio de 2015.

En Bilbao, a 3 de agosto de 2015.—La Diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea Otaolea

(I-1335)

Bizkaiko Foru Aldundiak 2015eko uztailaren 21ean egindako ohiko bilkuran hartutako erabakien laburpena.

AZTERGAIEN ZERRENDA

1. 2015eko uztailaren 14an egindako ohiko bilerako akta onestea.

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailekoak

2. Administrazio orokorraren eskalan, Administrarien azpieskalan, bitarteko funtzionarioa izendatzea.

3. Administrazio bereziaren eskalan, azpieskala teknikoan, erdi mailako teknikarien klasean, Arkitekto Teknikoen berezitasunean, bitarteko funtzionarioa izendatzea.

4. Administrazio bereziaren eskalan, azpieskala teknikoan, erdi mailako teknikarien klasean, Gizarte-Langileen berezitasunean, bitarteko funtzionarioa izendatzea.

5. Administrazio orokorraren eskalan, Administrarien azpieskalan, bitarteko funtzionarioa izendatzea.

6. «A-8an (135,360 PK, gutxi gorabehera) La Arenako zubia konpontzeko lanen proiektuaren idazketaren kontratu mistoa» esleitzea.

7. Autovía Gerediaga-Elorrio, S.A. (Agesa) sozietate emakidadunari Díez Ingeniería e Instalaciones, S.L. enpresa azpikontratatzeko baimena ematea, «bidezubiak drainatzea» izeneko lanak egin ditzan.

8. Autovía Gerediaga-Elorrio, S.A. (Agesa) sozietate emakidadunari Europea de Trabajos Forestales, S.L., enpresa azpikontratatzeko baimena ematea, «horma berdeen betearazpena» izeneko lana egin dezan.

9. Autovía Gerediaga-Elorrio, S.A. (Agesa) sozietate emakidadunari Electricidad Martín S.A. enpresa azpikontratatzeko baimena ematea, «tentsio baxuko instalazio elektrikoa, transformazio zentroak eta argiztapena betearaztea» izeneko lana egin dezan.

10. Autovía Gerediaga-Elorrio, S.A., sozietate emakidadunak aurkeztutako Gerediaga-Elorrio tartea eraikitzeko proiektuaren 4. proiektu aldarazia onartzea, Interbiak - Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea, S.A.ren txostenean adierazitako baldintzetan.

Ogasun eta Finantza Sailekoak

11. Konturako ordainketen arloan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren araudiak aldatzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua onartzea.

12. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 5eko 12/2013 Foru Araua aldatzen duen Foru Dekretu Arauemailea onartzea.

13. José Luis Ramírez Ortiz egilearen argazki-funtsaren dohaintza onartzea.

14. Basconia Sozietate Anonimoaren hondar-artxiboaren dohaintza onartzea, Foru Historia Artxiborako.

15. Estatuaren Loteria eta Apustuen Bizkaiko Ordezkaritza Batzordean eta Administrazio Batzordean foru ordezkariak kargutik kendu eta izendatzea.

Extracto de los acuerdos adoptados por la Diputación Foral de Bizkaia en la reunión ordinaria celebrada el día 21 de julio de 2015.

RELACIÓN DE ASUNTOS

1. Aprobar el Acta de la reunión ordinaria celebrada el día 14 de julio de 2015.

Del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales

2. Nombrar Funcionario/a Interino/a en la Escala de Administración General, Subescala: Administrativa.

3. Nombrar Funcionario/a Interino/a en la Escala de Administración Especial, Subescala Técnica, Clase: Técnicos/as Medios/as, Especialidad: Arquitecto/a Técnico/a.

4. Nombrar Funcionario/a Interino/a en la Escala de Administración Especial, Subescala Técnica, Clase: Técnicos/as Medios/as, Especialidad: Trabajador/a Social.

5. Nombrar Funcionario/a Interino/a en la Escala de Administración General, Subescala: Administrativa.

6. Adjudicar el «Contrato mixto de redacción del proyecto y ejecución de las obras de reparación del puente de La Arena en la A-8 (p.k. 135,360 aprox.)».

7. Autorizar a la sociedad concesionaria Autovía Gerediaga-Elorrio, S.A. (Agesa) a subcontratar con la empresa Díez Ingeniería e Instalaciones S.L. los trabajos de «drenaje en viaductos».

8. Autorizar a la sociedad concesionaria Autovía Gerediaga-Elorrio, S.A. (Agesa) a subcontratar con la empresa Europea de Trabajos Forestales S.L. los trabajos de «ejecución de muros verdes».

9. Autorizar a la sociedad concesionaria Autovía Gerediaga-Elorrio, S.A. (Agesa) a subcontratar con la empresa Electricidad Martín S.A. los trabajos de «ejecución de instalación eléctrica de baja tensión, centros de transformación e iluminación».

10. Aprobar el proyecto de construcción Modificado n.º 4 del tramo Gerediaga-Elorrio presentado por la sociedad concesionaria Autovía Gerediaga- Elorrio, S.A., en los términos indicados en el informe y anexo de Interbiak- Bizkaiko Hegoaldeko.

Del Departamento de Hacienda y Finanzas

11. Aprobar Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se modifican el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades en materia de pagos a cuenta.

12. Aprobar Decreto Foral Normativo por el que se modifica la Norma Foral 12/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de No Residentes.

13. Aceptar la donación del fondo fotográfico del autor José Luis Ramírez Ortiz.

14. Aceptar la donación del archivo residual de la Sociedad Anónima Basconia con destino al Archivo Histórico Foral.

15. Disponer el cese y nombramiento de cargos en el Consejo de Administración y en la Comisión Delegada de la Delegación en Bizkaia de Loterías y Apuestas del Estado.

16. Gizarte Ekintza Sailaren urte askotarako gastua baimentzea, nerabeentzako hezkuntza-programa espezializatu bat garatzeko.

17. 2016rako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrak egiteko gidalerroak onartzea.

Euskara eta Kultura Sailekoak

18. Bilboko Gotzaindegiari diru-laguntza ematea, 2015eko ekitaldian Bizkaiko elizaren ondareko ondasunak zaharberritzeko.

19. Euskaltzaindiaren foru diru-laguntza izenduna bideratzea, 2015eko ekitaldiko jarduna babesteko, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Euskaltzaindiak sinatutako 2015-2018 Kontratu-programarekin bat etorriz.

20. Bizkaiko Foru Aldundiak Azpiegiturak S.A.U.ri egingo dizkion foru ekarpenen erregimen ekonomiko-juridikoaren luzapena onartzea. Ekarpen horiek 2015eko abuztuaren 9tik 2017ko abuztuaren 8ra bitartean Bizkaia Frontoia, Kirol Etxea eta erantsien kudeaketa eta ustiapena finantzatzeko izango dira.

21. Gonzalo Olabarria Villota jauna Kulturako zuzendari nagusiaren kargutik kentzea xedatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua onartzea.

22. Gonzalo Olabarria Villota jauna Euskara eta Kultura Saileko Kultura eta Kirol zuzendari nagusi izendatzea xedatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua onartzea.

23. Ana María de Castro Rubalcaba andrea Euskara zuzendari nagusi kargutik kentzea xedatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua onartzea.

24. Ana María de Castro Rubalcaba andrea Euskara eta Kultura Saileko Euskara zuzendari nagusi izendatzea xedatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua onartzea.

Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailekoak

25. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta «Asociación Benéfico - Asistencial Elkarbanatuz» elkartearen artean sinatutako lankidetza hitzarmenaren aldaketa onartzea, «Red de Recursos Residenciales Bidanka» izeneko egoitza baliabidearen bidez, bazterkeria egoeran edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonei laguntzeko.

26. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Adsis Fundazioa erakundearen artean sinatuko den lankidetza hitzarmenaren aldaketa onartzea. Hitzarmenaren xedea da, Fika 70 gizarteratu eta laneratzeko programa izeneko egoitza baliabidearen bidez, gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonei laguntzea.

Gizarte Ekintza Sailekoak

27. Andoni Rekagorri Barrenechea jauna Gizarte Ekintza Saileko Administrazioaren eta Plangintzaren zuzendari nagusi kargutik kentzea xedatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua onartzea.

28. Gabin Azaola Estebez jauna Gizarte Ekintza Saileko Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako zuzendari nagusi izendatzea xedatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua onartzea.

29. Bilboko Elizbarrutiko Cáritasi emandako diru-laguntza izenduna arautzen duen hitzarmena onartzea. Hitzarmenaren xedea da 2015ean Egunon Etxea programa gauzatzea.

30. Bilboko Elizbarrutiko Cáritasi emandako diru-laguntza izenduna arautzen duen hitzarmena onartzea. Hitzarmenaren xedea da 2015ean Esku Onetan programa (menpekotasuna duten senideak etxean bertan zaintzen dituzten pertsonei atseden emateko proiektua) gauzatzea.

31. Azpiegiturak, SAUri egindako Aginduaren Ekonomia eta Finantza Planaren likidazioa onartzea. Aginduaren xedea honakoa zen: berak bere kabuz edo hirugarren batzuen bidez, Gueñesko (Bizkaia) Arangoiti kaleko 1E (1.C eta 1.D pisuak) eta 1B (B etxabea, 1.A eta 1.B) zenbakietan dauden higiezinak egokitu, prestatu eta ekipatzeko lanen proiektua, zuzendaritza eta betearazpena gauzatzea, bertan desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako etxebizitzak prestatzeko.

16. Autorizar el Gasto Plurianual relativo al desarrollo de un programa especializado de educación para adolescentes del departamento de Acción Social.

17. Aprobar las directrices de elaboración de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para 2016.

Del Departamento de Euskera y Cultura

18. Conceder subvención al Obispado de Bilbao para la restauración de bienes del patrimonio eclesiástico mueble durante el ejercicio 2015.

19. Instrumentalizar la subvención foral nominativa en favor de Euskaltzaindia para el sostenimiento de su actividad durante 2015 de conformidad con el Contrato programa 2015 –2018, suscrito entre el Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y Euskaltzaindia.

20. Aprobar la prórroga del régimen económico-jurídico de aportaciones forales de la Diputación Foral de Bizkaia a Azpiegiturak S.A.U. para la financiación de la gestión y explotación del Frontón Bizkaia, Kirol Etxea y anexos desde el 9 de agosto de 2015 hasta el 8 de agosto de 2017

21. Aprobar Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se dispone el cese de don Gonzalo Olabarria Villota como Director General de Cultura.

22. Aprobar Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se dispone el nombramiento de don Gonzalo Olabarria Villota como Director General de Cultura y Deportes del Departamento de Euskera y Cultura.

23. Aprobar Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se dispone el cese de doña Ana María de Castro Rubalcaba como Directora General de Euskera.

24. Aprobar Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se dispone el nombramiento de doña Ana María de Castro Rubalcaba como Directora General de Euskera del Departamento de Euskera y Cultura.

Del Departamento de Empleo, Inserción Social e Igualdad

25. Modificar el Convenio de Colaboración suscrito entre la Diputación Foral de Bizkaia y la entidad Asociación Benéfico asistencial Elkarbanatuz, para la atención a personas en situación de exclusión social en el dispositivo residencial denominado Red de Recursos Residenciales Bidanka.

26. Modificar el Convenio de Colaboración suscrito entre la Diputación Foral de Bizkaia y la entidad Fundación Adsis, para la atención a personas en situación de exclusión social en el dispositivo no residencial denominado programa de integración socio laboral-Fika 70.

Del Departamento de Acción Social

27. Aprobar Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se dispone el cese de don Andoni Rekagorri Barrenechea como Director General de Administración y Planificación del departamento de Acción Social.

28. Aprobar Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se dispone el nombramiento de don Gabin Azaola Estebez como Director General de administración y Promoción Social del Departamento de Acción Social.

29. Aprobar el Convenio regulador de la subvención nominativa otorgada a Cáritas Diocesana de Bilbao para la realización del programa Egunon Etxea en el año 2015.

30. Aprobar el Convenio regulador de la subvención nominativa otorgada a Cáritas Diocesana de Bilbao para la realización del programa Esku onetan proyecto de respiro para personas que cuidan familiares dependientes en su propio domicilio en el año 2015.

31. Aprobar la liquidación del Plan Económico Financiero de la Encomienda realizada a Azpiegiturak, SAU para la realización por sí misma ó por terceros del proyecto, dirección y ejecución de las obras de adecuación, acondicionamiento y equipamiento de los pisos sitos en los números 1E (pisos 1ºC y 1ºD) y 1ºB (pisos bajo B, 1ºA y 1ºB) de la calle Arangoiti del municipio de Gueñes, Bizkaia destinados a viviendas para personas con discapacidad.

32. Azpiegiturak, SAUri egindako Aginduaren Ekonomia eta Finantza Planaren likidazioa onartzea. Aginduaren xedea da, berak bere kabuz edo hirugarren batzuen bidez, Ondarroan pertsona nagusientzako eguneko zentroa egiteko proiektua idatzi eta zentroa eraiki nahiz ekipatzea; era berean, etorkizunean haren mantenimendua eta ustiapena hirugarrenei agintzea, eta desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako egoitzaren proiektua idatzi, eraiki eta ekipatzea, eta zerbitzu sozialetarako bulegoa egiteko proiektua eta eraikuntza gauzatzea.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailekoak

33. Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariak izendatzea «Udal Sareak S.A.» sozietatean.

34. Bizkaiko Foru Aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Kontseilu Aholku-emailean izango dituen ordezkariak izendatzea.
